ZEGNA KASUA:

2009ko urtarrilaren 27an prentsan publikaturiko ondorengo informazioa kontutan harturik, galdera hauek erantzun itzazu: (puntu bat)

- **a)** **Testuan esplizituki agertzen diren ingurune orokorreko faktoreak identifika itzazu.**
- **b)** **Testuan esplizituki agertzen diren ingurune bereziko faktoreak identifika itzazu.**
- **c)** **ZEGNA enpresak jarraitu duen lehia estrategia (estrategia konpetitiboa)esplika ezazu.**
- **d)** **ZEGNA enpresak jarraitu duen estrategia korporatiboa (enpresa arloan) esplika ezazu.**

Salmenten beherakada handiak ZEGNA enpresaren itxiera dakar: Enpresa italiarrak Bilboko denda ostiralean itxiko du

Ermenegildo Zegnak agur esaten dio Bilbori. 1910 urtean sorturiko enpresa italiarrak datorren ostiralean itxiko du Marques del Puerto kaleko bere denda. Krisi ekonomiko orokorraren ondorioz, bereziki uda geroztik, salmenten beherakada "bortitza" eman da eta horrek enpresaren planak azkartu ditu. Enpresa hau Bilbon luxuaren sektorea bultzatu zuenetako bat izan zen, ondorioz "urrezko mila" deituriko Gran Vía eta Elkano kaleen triangeluan alokairuen prezioen gorakada izugarria sortuz.

Baina Bilbon hamar urte eta erdi egon ondoren, kalitate altuko oihalen "Europako erregea"k bere sarearen zati bat desegingo du. Marka hau famatua da bere artilezko traje eta sastre lan bikainagatik, baina Espainian Burberry markaren pausoak jarraituko ditu. Itxiera hau lan doikuntza handi baten barnean gertatzen da, doikuntza honek ere Katalunian (Sant Quirze del Vallés eta Sabadellen) dituen bere bi produkzio-planten funtzionamendua ere jokoan jartzen duelarik.

Zegna enpresak bere Bilboko abentura 1998ko irailean hasi zuen, inauguraziora familiaren oinordekoen laugarren belaunaldiko parte den Benedetta etorri zelarik. Beste zenbait marka handi bezala (Calvin Klein, Carolina Herrera, Donna Karan edo Gucci), Zegna enpresa Guggenheim efektuak erakarririk iritsi zen Bilbora.

Bilboko denda Espainiako bere negozioaren ardatz estrategiko gisa ulertu zuen eta "ondo eta elegantzia handiarekin janztea, baina erosotasunez ere bai" gustatzen zaion bezeroaren bila hasi zen. Benedetta Zegnaren esanetan, estilo klasiko batengatik egin zuen apustua, bilbotarrek britainiar estiloagatik duten maitasunarekin lotu nahirik.

Iraila geroztik egoera kritikoa

Apustu honek lehenengo urteetan identitate ezaugarri hauekin funtzionatu zuen. Baina, iazko ekitaldia "ahaztekoa" izan zen, Iñaki García, dendako zuzendariaren hitzetan. Krisiak uda ondorengo salmentak hondoratu zituen. "Iraileraino nahiko ondo gindoazen; ez genuen

aurreko urtetan adina saltzen, beste guztiek bezala, baina ezin ginen kexa". Negozioaren bilakaerak okertze "bortitz" bat jasan zuen udazkena geroztik, salmenten beherakada egoera "kritiko" batean sartuz.

Salmenten beherakadaz gain, bereziki modaren sektorea zigortu duen krisiaren ondorioz, alokairuen garestitzea erantsi behar zaio, Bilbo estatuko hiri garestienen artean kokatuz. Dendaren itxieran, alokairua datorren martxoan bukatu arren, eragin asko izan du bere azalera handiak (400 metro baino gehiago ditu, bi solairutan banatuak). "Metro gehiegi genituen. 120 metro nahikoa lirateke eta gainera "urrezko milaren" kokapena gaur egun ez da lehen izan zena" dio Iñaki Garcíak.

Egoera honen aurrean, enpresa italiarrak behetik moztu zuen. Merkealdi garai bete-betean (sasoia salbatzen lagundu duten merkealdiak, hain zuzen ere), Danilo Caldiroli, Zegnak Espainian duen elkartearen zuzendariak, bilbotar bezeroei gutun bat bidali zien urtarrilaren 30tik aurrera aktibitatearen etendura komunikatuz. Gutunaren arabera, konpainia, "gizonezko luxuzko jantzien unibertsoarentzat" kokagune egokiago bat izango duen boutique berri baten irekieran lanean dabil, nahiz eta ez duen datarik ematen. Transizio garai honetan, besteak beste, Armani, Gucci eta Ralph Lauren enpresen oihalen hornitzaile den enpresak, bere bezeroak Madril eta Bartzelonako dendetan eta Bilbo eta Iruineako El Corte Inglesen dituen "corner"etan atenditzeko konpromisoa hartzen du.